



04

PAPELES  
DE ECONOMÍA  
SOLIDARIA  
EKONOMIA  
SOLIDARIOAREN  
PAPERAK

## Economía solidaria y economía feminista: elementos para una agenda

Miriam Nobre

La ECONOMÍA SOLIDARIA es una visión y una práctica que reivindica la economía en sus diferentes facetas (producción, financiación, comercio y consumo) como medio –y no como fin– al servicio del desarrollo personal y comunitario. De esta manera, se presenta como una alternativa al modelo económico imperante, siendo un instrumento de transformación social, que fomenta un desarrollo sostenible, justo y participativo.

REAS Euskadi –Red de Economía Alternativa y Solidaria– persigue conseguir el mayor fortalecimiento y reconocimiento posible de la economía solidaria, potenciando el impulso de experiencias e instrumentos que generen alternativas transformadoras en la esfera económica. Desde esta perspectiva, PAPELES DE ECONOMÍA SOLIDARIA pretende ofrecer herramientas para la investigación, difusión y sensibilización ciudadana desde una mirada crítica y alternativa.



# 04

PAPELES  
DE ECONOMIA  
SOLIDARIA  
EKONOMIA  
SOLIDARIOAREN  
PAPERAK

## Ekonomia solidarioa eta ekonomia feminista: agenda baterako elementuak

Miriam Nobre

**Miriam Nobre**, Ekintzaile feminista, agronomoa eta master-graduduna Latinoamerikako Gizarteratze Programan (São Pauloko Unibertsitatea). SOF - Sempreviva Organização Feminista taldeko kidea da 1993az geroztik, eta, han, herri-hezkuntzako, ikerketako eta aholkularitza teknikoko lanetan dihardu ekonomia feministaren, agroekologiaren, elikadura-burujabetasunaren eta ekonomia solidarioaren alorretan. 2006tik 2013ra bitartean, Emakumeen Mundu Martxako Nazioarteko Idazkaritzako koordinatzailea izan zen.

Laguntzailea:



**Ekonomia solidarioa eta ekonomia feminista: agenda baterako elementuak**  
REAS - Euskadiko Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea

Ekonomia Solidarioaren Paperak  
Papeles de Economía Solidaria  
4. zenbakia  
2015eko otsaila

**REAS Euskadi**

Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea  
Red de Economía Alternativa y Solidaria  
Venezuela Plaza 1, 2. A • 48001 Bilbo  
Tel.: 944 160 566  
reaseuskadi@reaseuskadi.net  
www.economiasolidaria.org/reaseuskadi

L.Z.: Bi-2670-09

Diseinua eta maketazioa: Marra, S.L.  
Gaztelaniaren itzulpena: Magdalena León Trujillo.  
REMTE – Red Latinoamericana Mujeres Transformando la Economía.  
Itzulpena: Labayru Institutua  
Inprimaketa: Lankopi, S.A.



**Aitortu-Ez merkataritzarako-Partekatu baimen beraren arabera 3.0**

Dokumentu honek Creative Commons erakundearen lizentzia dauka. Obra hau libre kopiatzeko, bantzeko eta jakinarazteko baimena ematen da, betiere haren egilea aipatzen bada eta merkataritza-helburuetarako erabiltzen ez bada. Dokumentuan aldaketarik egiten bada, beste era bateko dokumentua sortzeko edo horretan oinarrituta beste obra bat egiten bada, hau bezalako lizentzia eskuratuta baino ezin izango da banatu. Lizentzia osoa:  
<http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/deed.eu>

## Laburpena

Ekonomia solidarioaren xedea da pertsonen beharrian material eta afektiboei erantzutea, autogestioan eta elkarrekikotasunean oinarriturik. Ekonomia kapitalistari kontrajartzen zaio, azken horrek bere berrekoizpena baitu ardatzat, etekinean, jabetza pribatuan eta lanaren alienazioan oinarriturik. Ekonomia kapitalista ez da lana, banaketa eta kontsumoa antolatzeko era bakarra, eta, gure gizartean hegemonikoa bada ere, ekonomia solidarioa ekonomia kapitalistaren aurreko erresistentzia-modutzat ikusten da.

Analisia eta praktika uztartuta, ekonomia solidarioak -ekonomia feministarekiko elkarrizketan-ekoizpenaren eta berrekoizpenaren arteko, politika-arloaren eta ekonomia-arloaren arteko zazitaketak gainditzeko aukera ematen du, eta haren praktikak erresistentziaren ekonomia politiko baten eran mamitzen dira.

Miriam Nobrek, Brasilen egiten duen lanaren eta aktibismoaren esperientziatik, agenda baterako elementuak proposatzen dizkigu, ekoizpena eta berrekoizpena uztartzeko beste era batzuen aukerak sortzeko. Ildo horretan, hainbat kolektibo feministak abian jarritako eztabaidek eta ekintzek uztarketa hori sakondu dezakete, eta agendan interdependentzia, zainketen krisia eta antzeko beste gai batzuk sar ditzakete.



# Aurkibidea

Ekoizpena eta berrekoizpena	7
Politika-arloa eta ekonomia-arloa	8
Erresistentziaren ekonomia politikoa	9
Agenda baterako elementuak	10
Ondorioak	16





Ekonomia solidarioaren xedea da pertsonen beharrian material eta afektibo erantzutea, autogestioan eta elkarrekikotasunean oinarriturik. Ekonomia kapitalistari kontrajartzen zaio, azken horrek bere berrekoizpena baitu ardatzat, etekinean, jabetza pribatuan eta lanaren alienazioan oinarriturik. Ekonomia kapitalista ez da, beraz, lana, banaketa eta kontsumoa antolatzen era bakarra, gure gizartean hegemonikoa bada ere. Hori dela eta, ekonomia solidarioa ekonomia kapitalistaren aurreko erresistentzia-modutzat ikusten da.

Ekonomia solidarioko esperientzia asko emakumeek bultzatzen dituzte, edo emakumeentzat dira. Ordainsaria ez da emakumeek beren parte-hartzea ebaluatzen kontuan hartzen duten ikuspegi bakarra; horrez gain, ikaskuntza eta bizikidetzaren balioesten dituzte, eta emakumeen aurkako indarkeria, ugalketa-osasuna edo antzeko gaiak jorratzeko aukera. Oro har, parte hartzen duten emakumeak indartsuagoak, baliozkoagoak sentitzen dira, autoestimu gehiagorekin, beren ezagutzagatik eta ezer gutxitik abiatuta berrikuntza sortzeko gaitasunagatik.

Analisisa eta praktika uztartuta, ekonomia solidarioak -ekonomia feministarekiko elkarriketan- ekoizpenaren eta berrekoizpenaren arteko, politika-arloaren eta ekonomia-arloaren arteko zatiketak gainditzeko aukera sortzen du. Haren praktikak erresistentziaren ekonomia politiko baten eran mamitzen dira. Praktika hauek ekonomia kapitalista eta patriarkal batean gauzatzen dire-

nez, agenda bat eratzen dute, berekin dakarrena subjektu politikoa ezaugarritzea eta Estatuari eskakizunak egitea, ekoizpen-bideak, kudeaketa eta merkaturatzea kontrolatzeko aukerari dagokionez.

### Ekoizpena eta berrekoizpena

Ekonomia feministak ekonomia kapitalistaren egituraren berezko ezaugarriak dakartza ekonomia solidarioaren eztabaidara eta praktikara: sexuaren arabera lan-banaketa eta ekoizpenaren eta berrekoizpenaren arteko bereizketa. Sexuaren arabera lan-banaketa emakumeen zapalkuntzaren oinarri materiala da, eta bereizketa bidez antolatzen da: zeregin eta funtzio batzuk gizonezkoenak dira, eta beste batzuk, emakumezkoenak; bai eta hierarkia bidez ere: gizonezkoek esleitzen zaizkien zeregin eta funtzioak balio handiagoak dira gizarte kapitalista eta patriarkalean. Gizarte kapitalista egituratzen da, orobat, salgai-ekoizpena (merkatuan truke-balioa duten ondasun eta zerbitzuak) eta pertsonen -salgaiak ekoizten dituzten langileen- berrekoizpena bereiziz. Berrekoizpenaren barruan badaude bai alderdi materialak (adibidez, elikadura, higiena, atsedena), bai alderdi afektiboak eta harremanezkoak (esaterako, autoestimuen garapena, entzuteko eta negoziatzeko gaitasunaren garapena). Berrekoizpena emakumeen esparrutzat jotzen da, eta familia-unitateetan eta etxearen eremuan gauzatzen da. Gaur egun ere, emakumeek ordu gehiago ematen dute etxeko lanetan gizonek baino<sup>1</sup>. Berrekoizpen-lana ikusezin bihurtu eta baliogabetu

<sup>1</sup> Brasilen, 2011n, 16 urtetik gorako emakume landunek astean etxeko lanetan egiten zuten lanaldia 22,3 ordukoa zen, batez beste; gizonezkoena, aldiz, 10,2 ordukoa zen. Ekonomiaren aldetik ez-aktibotzat jotzen diren emakumeek dagokienez, haien lanaldia 33,8 ordukoa zen, eta egoera bereko gizonena, ordea, 14,7 ordukoa. (SPM, 2013) Espainiar Estatuan, Denboraren Erabilerrari buruzko Inkestaren arabera (2009-2010), etxea eta familia zaintzen denbora ematen duten emakumeen ehunekoak %91,9 da, eta egunean 4 ordu eta 29 minutu ematen dituzte horretan, batez beste; gizonezkoen artean, aldiz, ehuneko hori %74,7ra jaisten da, eta ia denbora erdia ematen dute: 2 ordu eta 32 minutu (IEM, 2013).

egiten da gizartean. Zenbait ekonomialari feministak aditzera ematen dute helburu bakarra ez dela etxeko eta zainketako lana ikusgai bihurtzea, baizik eta, halaber, "ekoizpen-lana" deritzon horren zati ere badela erakustea.

Ekonomia kapitalistan, ekoizpen-lanak dituen logikak eta denborak bateraezinak dira biziaren zaintzaren logika eta denborekin. Emakumeek bi alderdi horiek gainzama eta tentsio handiz bateratu izan dituzte. Lana eta familia bateratzeko emakumeentzako politikez ez bezala, ekonomia feministak proposatzen duen horizontea da funtsezko kontraesan hori gainditzea, ekonomia berrantolatuz (sargaien erabilerari, inbertsioei eta abarri buruzko erabakiak), berrantolaketa horren ardaztat gizon-emakumeen biziaren iraunkortasuna jarrita.

Ekonomia solidarioak lanaren esanahia berritu nahi du, hazkunde pertsonalera dakarrenaren arabera, eta ez haren merkataritzazko neurriaren (truke-balio) arabera; era berean, lanaren kontzeptua zabaltu nahi du. Jarduera ekonomikoa berezko arrazionaltasun batekin antolatzeko proposatzen du, ekintzailetzako eta elkartasuneko irizpideak bateraturik (Gaiger, 2007). Inguruaren dinamika ekonomikoan eragina duten sare eta harremanak ezar daitezela proposatzen du. Ildo horretan, ekonomia justizian eta berdintasunean oinarri hartuz berrantolatzeko laguntzen du.

Berrekoizpen-lanaren sozializatorako hainbat emakume-talde egin dituzten jarduerak, haren esanahi ekonomikoa ez ezik, gizartearen kohesiorako eta banakoen zein kolektiboen -taldearen zein komunitatearen- hazkunde-rako egiten duen ekarpena ere aitortzen saiatzen dira. Era kolektiboan antolaturiko berrekoizpen-lanak ikaskuntza, autonomia eta soziabilitatea dakartza. Hainbat eta hainbat ekimen gertatu dira hainbat testuinguru eta une historikotan. Esate baterako, Perun, 7.000 herri-jantokik baino gehiagok otorduak era komunitarioan prestatzen dituzte, eta, horrela, familien elikadura-segurtasuna bermatzen dute eta emakumeek etxeko lanetan ematen duten denbora gutxitzen dute. Quebecen, haurtzaindegi komunitarioak daude, emakumeei etxebizitzaren inguruan, lanbideratzearen inguruan eta etxeko

indarkeriaren eta sexu-indarkeriaren aurkako babesaren inguruan laguntzeko hainbat zentro komunitarioekin batera. (Nobre eta Guerin, 2012).

Ekonomia solidarioko taldeetan parte hartzen duten emakumeek beren denbora antolatzeko aukera zein -une jakin batean senitarteko gaixo bat zaintzearen haietako batek bere parte-hartzea murriztu behar duenean- gainerako kideek ulertzea balioesten dituzte. Baina, aldi berean, kontatzen dute familiako beste kideek azkenean zainketen ardura guztia beraiei pasatzen dietela, emakume horiek badutelako lan ordainduarekin bateratzeko aukera. Hala, bada, erronka gisa geratzen da oraindik ekonomia solidarioko ekimen guztientzat, oro har, eta emakume-taldeen gain, ekoizpenaren eta berrekoizpenaren arteko beste uztartze-era batzuk eragin eta gauzatea. Hori ez da oraindik bihurtu ekimenen elkartasun-maila ebaluatzeko irizpide, Luiz Inácio Gaigerren analisiak proposatzen duenez<sup>2</sup>.

## Politika-arloa eta ekonomia-arloa

Ekonomia solidarioak kapitalismoaren beste kasu bat ere gainditu nahi du; alegia, politika-arloaren eta ekonomia-arloaren arteko bereizketa. Sistemaren mistifikazioetako bat da ekonomiak berez funtzionatzen duela, lege "natural" batzuek eraginda, hala nola eskaintza-eskarien legeak edo baliagarritasunen maximizazioak, besteak beste. Horrela, ekonomiaren alorreko erabakiak boterearen goi-mailan -nazioartekoan ere bai- mantentzen dira, oso pertsona gutxiren eskuetan, askori eragiten dieten aferak direnean.

Ekonomia solidarioko emakume-taldeak Estatuaren, merkatuaren eta familiararen arteko bitartekotza-eremu batean eraten dira. Lehenik, kokatuta dauden lurraldeetan, emakumeen eta gizonen arteko harreman berriak ezartzeko konponbideak eta saioak eraiki nahi dituzte. Hurbileko justizia bat ezartzen dute, non eskubideak erabiltzeko aukera haien komunitateetako egunerokotasunean mamitzen den, interesak aditzera emanaz eta han elkarrekin bizi direnen artean negoziatuz. Esaterako, nekazaritzako produktuak ekoizteko eta kontsumitzeko hainbat kokaleku eta saretan, akordio kolektiboetan etxeko indarkeriaren aurkako arbuioa

<sup>2</sup> Egileak ekimenetan "elkartasuna" osagaia ebaluatzeko proposatzen dituen irizpideak ekoizpen-lankidetzari mailari, kudeaketako parte-hartze eta demokraziari, merkataritzako praktika solidarioei eta konpromiso sozial eta politikoari dagozkie. (Gaiger, 2007).

sartzea lortu da, erasotzaileak aldi baterako edo betiko kanporatzeko aukerarekin.

Emakumeek ekoizpen-taldeetan parte hartzeak bidea indartzen edo irekitzen du mugimenduekin edo antolabide sozialekin bat egin dezaten. Ekonomia solidarioaren mugimenduan bilduriko ekoizpen-taldeek Estatuarentzako eskaerak antolatzen dituzte, diru-laguntzen, arau-esparruen edo erosketa publikoen gainean, besteak beste. Herritartasunaren eta eskubideak erabiltzeko aukeraren nozioa hedatu egiten dute, gure gizartean, gehienetan, halakoak enplegu formalarekin lotzen baitira oraindik. Adibidez: Peruko herri-jantokietako emakumeek soldata eskatzen diote Estatuari, beren lanaren truke, edo pensio bat eta Gizarte Segurantzako prestazioak ordaintzeko, bederen; Mendebaldeko Afrikako emakume ekoizleen kooperatibek eskubideak eta laguntza eskatzen dizkiete udalei nahiz gobernu zentraleri, beren produktuarentzako bidezko prezio batez gain (Hillenkamp, Guérin, Verschur, 2014). Perun esne-banaketan diharduten emakumetaldeak, esate baterako, oso modu tinkoan borrokatu ziren Ameriketako Estatu Batuekin ezarritako merkataritza askeko itunaren aurka; izan ere, itun horrek debekatu egiten du nekazari-komunitateek ekoiztako esnea zuzenean eta diru-laguntza bidez erostea.

## Erresistentziaren ekonomia politikoa

Ekonomia solidarioak iraun dirau komunitate tradizionaletan (indigenak, *quilombola* direlakoak eta nekazariak), lana eta lurraldearen gobernu pertsona guztiei zein naturari begira antolatzen dutenean. Komunitate batzuetan, lana osagarritasun hierarkiko baten arabera antolatzen da: gizonek eta emakumeek eginiko lana ez da bereiz ikusten, osagarri baizik; hala ere, gizonen lanari garrantzitsuago irizten zaio. Inguruko gizartearekiko harremanen ondorioz desberdintasun hori indartu ohi da, gizonak are gehiago balioetsi ohi dira, eta haien iritzia guztia gizon zein emakumeena balitz bezala hartu ohi da. Abya Yalako<sup>3</sup> feminista indigena batzuek bere historia berreraikitzen dute, kolonialismo patriarkalak jatorrizko patriarkatuarekin nolako interakzioa izan zuen deskribatuz, eta mundu-ikuskera askatzaile bat proposatzen dute, gorputza, lurraldea eta oroimena barne hartzen dituen.

Mundu-ikuskera horrek abiatu behar du emakumeen lanak komunitateen iraunkortasunerako duen esanahitik. Badira zenbait adibide. Amazoniako emakume indigenak, eskulangintzarako zuntzen eta hazien bila ibiltzen direnean, lurralde horren segurtasuna arriskuan jartzen duten inbaditzaileak daudela aditzera emateko moduko edozein aldaketaz jabetzen dira. *Quilombola* direlakoan artean, emakumeek sortu zituzten *quilombo* deritzen eta gaur egun ere badiraute komunitateetako asko<sup>4</sup>; halakoan historiaren zaindariak dira, eta haien lurraldean jarraitzen dute lan egiten, gizonezko asko eta asko hirira migratzera behartuta dauden bitartean.

Ekonomia solidarioko praktikak hirira hedatzen dira, eta bertan antolatzen dira ekonomia kapitalistaren krisien eta hausturen uneetan, merkatuak eta Estatuak herri-tarren zati handi baten eguneroko beharriari erantzuten ez dietenean. Herri-jantokiak, zerbitzu-orduen bankuak, etxebizitza kolektiboak, fabrika berreskuratuen autogestioa eta antzeko esperientziak Hegoaldeko zein Iparraldeko herrialdeetan gertatzen dira, eta, tartean, emakumeak erruz egoten dira.

Iraupen ertaineko borroka-prozesuetan, hala nola greba luzeetan edo Hondurasko estatu-kolpearen aurkako mobilizazioan<sup>5</sup>, emakumeek greba-funtsetan eta sukalde komunitarioetan izaten duten parte-hartzea funtsezkoa da irauteko, negoziazio-baldintzetarako eta mobilizazioen arrakastarako. Esperientzia horiek erresistentziaren ekonomia politikoa eratzen dute, eta horrek asko zor dio emakumeen esperientziari, dela elikagaien ekoizpen kolektiboan, dela langabeziak edo estaturik ezak jotako maila xeheko auzoetan pertsonak dituzten eguneroko beharriari erantzutean.

Argentinako "piketeroak" horren adibidea dira. Hain zuzen, 2001. urteko otsailetik maiatzera bitartean, hainbat pikete masibo egin ziren, eta kaleak eta errepedeak moztu zituzten, haietako bi denbora luze (9 egun otsailan eta 18 egun maiatzean). Isabel Rauberren aburuz, emakumeen trebetasunei -haien genero-sozializazioaren bidez eraikita eta eskuarki gaitzetsita- esanahi berria eman zitzaion mugimenduan, egunerokoaren eta estrategiazkoaren arteko uztarketa gisa (Rauber, 2002).

<sup>3</sup> <http://porunavidavivible.files.wordpress.com/2012/09/feminismos-comunitario-lorena-cabnal.pdf>

<sup>4</sup> *Quilombo* hitza Brasilen erabiltzen da esklabo beltz iheslarien kokaleku eta bilgune politikoki antolatua izendatzeko; ur-iturriak eta leizeak zeuden tokietan kokatu zituzten, eskuarki. Komunitate horiek badiraute oraindik, eta herrialde osoan 2.000 baino gehiago direla zenbatetsi dute.

<sup>5</sup> 2010. urtean, Manuel Zelaya presidentea indarrez kendu zuten kargutik.

Emakumeak gehiengoa ziren mugimenduan, eta handik gutxira ohartu ziren, gorputzaz haraindi, beren ahotsa jarri behar zutela. Horrela, emakume-batzar bat antolatu zuten, eta parekidetasuna aldarrikatzen hasi ziren instantzia guztietan, eta, batez ere, mugimenduaren bozeramaileak izatea lortu zuten. Janariak prestatzerakoan gizonekin zegoen lan-banaketa, ordea, ez zen ikusgai bihurtu. Piketeroen mugimendua antolatzen jarraitu zuten Buenos Airesko eskualdeko maila xeheko auzoetan, sukalde komunitarioak eta okindegiak barne, bai eta etxeko indarkeria prebenitzeko taldeak ere (Nobre eta Freitas, 2011).

Piketeroen mugimendua eta haren ekintza-modua -alegia, espazio publikoa okupatzea eta bizimodu solidarioa eta autogestionatua sortzea- inspirazio gisa hartu zen 2008ko finantza-krisiaren aurreko mugimenduentzat, presentzia handiarekin Ameriketako Estatu Batuetan (*Occupy*) eta Espainiar Estatuan (Suminduak). Mugimendu horiek hartu zuten helburua izan zen herriaren beharri-zen premiazkoenei erantzutea, batez ere gazte eta etorkinei, lan ez-egonkorreko langileei eta beren etxebizitzak finantzatzearren zorpeturik zeudenei begira. Sistema aldatzeko borondateak -bai eta pertsoneri, bizi diren tokian, ekonomiaren gainean erabakitzeko ahalmena emateko borondateak ere- piztu zituen halako erantzunak. Desobedientzia ekonomikoko eskuliburuari denbora-bankuak sortzea gehitu zitzaion<sup>6</sup>. Catalunya plazako feminista suminduek manifestu bat idatzi zuten, "Iraultza feminista izango da, edo ez da izango" izenburukoa. Haiek ikuspegi feminista eskatzen dute eredu ekonomiko eta sozialaren eraldaketan, *herritartasun* kontzeptua aldarrikatzen dute, horren barruan egonik denok zainduak izateko eskubidea, zainketako lana aitortzea eta banatzea, eta *herritartasuna*. Denbora-bankuetan, pertsonen orduak jartzen dituzte eskuragarri zerbitzuak emateko, haurrak eta adinekoak zaintzeko edo etxeko konponketa txikiak egiteko, besteak beste. Esperientzia horrek zainketaren banaketa eta autogestioa hedatzen du, familien mugez haraindi.

## Agenda baterako elementuak

Brasilen, ekonomia solidarioa honela definitzen da: "langileek -gizon zein emakume- elkartasunez eta era kolektibo

eta autogestionatuetan antolatu eta gauzatutako jarduera ekonomikoen multzoa; jarduerok ekoizpenekoak, banaketakoak, kontsumokoak, aurrezkitakoak nahiz kreditukoak izan daitezke", eta haren unitate bakun eta zehatzena Ekimen Ekonomiko Solidarioak dira -EES- (SENAES, 2006). 2007an eginiko Ekonomia Solidarioaren Mapaketan, EESek sei baldintza betetzen zituzten: "a) familiak gaindiko antolakunde iraunkorrak eratzea; b) bazkide-langileen jabetzakoak eta kontrolpekoak; c) bazkide ez diren langileak noizbehinka eta oso neurri txikian enplegatzea; d) jardueren nahiz emaitza-esleipenaren kudeaketa kolektiboa; e) erregistroarekin, legezkoa izan edo informala izan; f) ekoizpenerako, merkaturatze-ko, zerbitzuetarako, krediturako edo kontsumorako izaera ekonomikoa" (Gaiger, 2007). Ekonomia Solidarioaren Informazio Sistema Nazionala (SIES) Ekonomia Solidarioaren Idazkaritza Nazionalaren datu-basea, 2004. urtean ezarri zen, eta EESak ezaugarritzeko hiru txanda egin zituen; hala, bada, herrialde osoan 33.518 ekimen identifikatu zituen, tartean 1.423.631 bazkide zirelarik. EES gehienak landa-inguruneak ziren (ia %55), eta, batez ere, Ipar-Ekialdeko Eskualdean zeuden (ia %41). Identifikatu ziren EES gehienak formalizaturik zeuden (ia %70), elkarte gisa gehienbat. Bazkideen artean, aurkitu zen %43.6 emakumezkoak zirela eta %56.4 gizonnezkoak (SENAES, 2013).

2005. urtean sistematizatutako datuak kontuan hartuz, emakumeak ziren nagusi ekimen txikienetan, 10 bazkide bitarteko EESetan parte hartzen zutenen %63 ziren-eta; aitzitik, 50 bazkide baino gehiagoko EESetan, gizonzkoak %66 ziren (SENAES, 2006). Emakumeek txikiagoak eta -askotan- informalak eta aldizkoak diren taldeetan parte hartzeak eragiten duen hipotesia da litekeena dela haiek diharduten taldeak oraindik EES gisa aitortu gabe egotea. Horren adierazgarri bat da SOF (Sempreviva Organização Feminista) eta CF-8 (Centro Feminista 8 de Março) direlakoek Herritarren Lurraldeak programan egin zuten datu-bilketa<sup>7</sup>, programan 2009tik 2013ra parte hartu zutenean. Azterlana egitean, ekoizpeneko 972 emakume-talde identifikatu ziren, SENAESek eremu beretan egin zuen mapaketan identifikaturiko 267en aldean (Butto eta beste batzuk, 2014).

<sup>6</sup> Katharina Aingerrek aipatzen du, 2012. urtean, 200 denbora-bankutik gora zeudela Espainiar Estatuan. <http://www.theguardian.com/commentisfree/2012/may/08/indignados-make-change-contagious> (2014ko uztailaren 17an ikusia).

<sup>7</sup> Herritarren Lurraldeak programa (PTC) 2008. urtean sortu zuten, politika publiko nazionalak abian jartzeko lurralde-estrategia gisa. Hainbat eskualdetako 120 lurralde barne hartzen ditu, bai eta ministerio zein politika publiko ugari ere.

Litekeena da, halaber, ekoizpen arloko emakume-taldeek ikusezintasuna beraiek egiten dituzten jarduerekin lotuta egotea, bereziki jarduera horiek autokontsumorako eta/edo etxeko lana ordeztzeko jarduerak direnean. Emakumeek talde mistoetan duten ikusezintasuna ere bada beste hipotesi bat. Emakumeen presentzia handiagoa da hirietako taldeetan, landa-inguruneetan baino<sup>8</sup>, eta horrek aditzera ematen du landa-ingurune elkarrekin eta kooperatiba handiago eta egituratuagoetan senarra edo aita izaten dela familiaren ordezkaria. Emakumeen presentzia ikusezintasunaren beste adierazgarri bat da Rio de Janeiron eginiko datu-bilketa; hain zuzen, kasu horretan, emakume gehiago zegoen bazkide ez ziren langileen artean, bazkide zirenen artean baino<sup>9</sup>. Talde mistoetan, berez, emakumeak egoteak ekimena indartzen laguntzen du. Luiz Inácio Gaigerrek irizpide batzuk proposatzen ditu ekonomia solidarioko ekimenen ekiteko ahalmena zein elkartasun-ahalmena aztertzeko. Mapaketaren datuak erabiliz, ondorioztatzen du gehienak bitarteko maila batean biltzen direla, elkartasun gehiago eta ekintzaitzeta gutxiago izateko joerarekin. Horrez gain, atzematen du bi ezaugarri horien konbinazio hobea dagoela tamaina handieneko eta emakumezko bazkide gehiagoko EESetan; horrek, bada, frogatu egiten ditu ekonomia solidarioak bai emakumeentzat bai ekonomiaentzat berarentzat dituen ondorio positiboak (Gaiger, 2007).

Mapaketan sexuaren arabera banakatuta aurki daitezkeen datuak, zoritxarrez, aipatu berri direnak baino ez dira. Interesgarria litzateke jarduera-motari eta errentagarritasunari buruzko informazioa izatea, besteak beste, 2005eko datu-bilketan identifikatu ziren emakumeen berariazko 2.300 taldeei dagokienez. Emakume-taldeek mugak eta aukerak garrantzizko adierazleak lirateke, talde horientzat ez ezik, talde mistoetan emakumeek duten parte-hartzea indartzeko ere.

### *Jarduera-mota eta prestakuntza*

Taldeek egiten duten jarduera-mota ekoizpen-bideak kontrolatzeko aukeraren adierazle garrantzitsuak dira. SOF eta CF-8 antolakundeek -80 Herritarren Lurraldetako 212 ekoizpen-talderekin batera- 2009an egin zuten diagnostikoan, atzeman zen nekazaritza zela

jarduerarik aipatuena nekazari-kokalekuetako emakumeen artean, eta familiako emakume nekazarien artean, aldiz, eskulangintza. Alde horrek erakusten du nekazari-kokalekuetako emakumeek aukera handiagoa dutela lurraren erabileraz erabakitzeke edo eremu erkideez baliatzeko.

Askotan, emakumezkoen genero-sozializazioan ikasitako jarduerak egiteko biltzen dira emakumeak, hala nola, elikagai-prozesaketa (ogiak, marmelada, kontserbak), joskintza eta eskulangintza. Sarritan, halakoak dira emakumeek eskura dituzten prestakuntzako jarduerak bakarrak. "Brasil Miseriarik Gabe" programari loturiko PRONATEC (Heziketa Teknikoa eta Enplegua izateko Programa Nazionala) deritzon programako lanbide-prestakuntzako ikastaroetan, emakumeak ikasleen %70 dira. 2012. urtean, "Emakume Berritzaileak" kanpaina abiarazi zuten, PRONATEC programako ikastaroen artean, emakumeek gizonezkoen lanbidetzat hartzen diren (eraikuntza zibila, elektrizitatea, mekanika) ikastaroetan parte har zezaten sustatzeko. Aldi berean, badago joera bat adinekoen zainketako jarduerak balioesteko, hura funtsezko lan bat izanik, bizi-itxaropena luzatu ahala garrantzi handiagoa izaten duena.

Anbigutasun horrek ekonomia solidarioa zeharkatzen du. Emakumeen ohiko jarduerentzat jotzen direnak airtortzea eta hobeto ordaintzea lortu nahi izateaz gain -esaterako, eskulangintza, familien eta nekazarien nekazaritza indartzeko kontuan hartuta-, emakumeak beste jarduera batzuei lotzea ere aukera bat da. Gauza bera gertatzen da emakumeek jarduten duten espazioari dagokionez. Alde batetik, Laguntza Tekniko eta Landa Hedapenak (ATER) etxeko baratzea ekoizpen-espaziotzat hartzea eta Osasun Jagoletzak sukalde salmentarako elikagaien ekoizpen-espaziotzat jotzea nahi da; beste aldetik, baratze, sukalde eta okindegi komunitarioak ezarri nahi dira, era kolektiboan kudeaturiko espazio gisa, emakumeek protagonismoa dutelarik. Mossoróko (Iparraldeko Río Grande) *Decididas a vencer* ("Irabazteko prest") taldeak barazki organikoak ekoizten ditu. Hasieran, ekoizpena kolektiboa zen, baina ura eskuratzeko zailtasunak zirela medio, baratzean ekoizten hasi ziren, eta era kolektiboan merkaturatzea baino ez zuten

<sup>8</sup> Elkarrizketa Paul Singerrekin (2014ko uztailaren 16an kontsultatua): <http://consuladodamulher.org.br/entrevista-com-paul-singer-a-forca-da-mulher-na-economia-solidaria/>

<sup>9</sup> <http://www.ibase.br/pt/wp-content/uploads/2011/06/ecsol-mapeamento-dos-empreendimentos-econ%C3%B4micos-solid%C3%A1rios.pdf> (2014ko uztailaren 16an kontsultatua).

egiten. Beraien ustez, hori atzerapausoa izan zen. Lehen, etxetik ateratzen zirenean, seme-alabak etxeko lanetan inplikatzeko ziren; orain, haiek dira berriz ere arduradun bakarrak, eta etxeko lanak izaten dira berriro haien lehenentasuna, haien ekoizteko ahalmena ere oztopatuta.

Emakumeenak direla uste diren jarduerak balioestek badakar, era berean, beren genero-sozializazioan ikasi dituztelako naturalizatu den emakumeen gaitasuna aitortzea. Emakume nekazariak ezagutza sakonak dituzte hazi-hautaketan, espezie-etxekotzean, landareak konbinatzeko saiakuntzetan (familiaren dietaren kalitatea ziurtatzen dute), ekosistemaren egonkortasunean nahiz biodibertsitatean. Beren irizpide propioen arabera bideratzen dute ekoizpena, esaterako: nahiago dituzte esne gutxi ematen duten behiak, egunero jetzi beharra ez dagoelako; artoa ere nahiago dute, harrik izaten ez duelako; bai eta indabak ere, arin prestatzen direlako. Praktika horiek agroekologian biltzen dira, eta emakumeen prestakuntza, egiaz, hobekuntza-prozesu bat da, emakumeen artean haziak eta lantze-teknikak trukatzeko sustatzeko beharra duena.

Eskulangintzan eta joskintzan diharduten emakume-talde asko langintza horietan hasten dira, batzuk besteei irakasten dietenean. Jakintza kolektibo hori bere muge-tara iristen denean baino ez dira hasten kanpoko laguntza bilatzen, eskuarki gizonezkoenak direla uste diren jarduera-ataletan, hala nola, makinetan edo merkaturatzean. Emakumezkoen genero-sozializazioak -hezakuntza formalak sendoturik- emakumeak makinekin trebetasun eskasekoak izatea eragiten du, hau da, "teknologia gogorra" deritzen horrekin. Hala ere, makinak erabiltzen jakitea baino gehiago, funtsezkoagoa da makina horien funtzionamendua ezagutzea, lanaren zatiketa eta alienazioa hausteko, bai eta emakumeen irizpideen arabera birstutu ahal izateko, eta ez ekonomia kapitalistaren irizpideei jarraituz. Irizpide horiek izan litezke lanaren nekeak murriztekoak (pisuak, esfortzu errepikatuak), kostuei lotutakoak (argindarra, ura), baina, batez ere, lan-erritmoaren kontrolaren ingurukoak<sup>10</sup>.

### Finantzaketa

Kide gutxiagoko taldeek, hau da, emakume gehien bil-

tzen diren taldeek, "informaltasunean funtzionatzeko joera dute, eta baliabide gutxi eskuratzen dituzte. Baliabide horiek, gehienetan, taldearenak berarenak izaten dira, edo elizen laguntza-funtsetatik eskuratzen dituzte, edo inbertsioen bideragarritasunaren aldetik eta, areago, inbertsioen erabilera kontrolatzearen aldetik hain hertsiak ez diren beste antolakunde batzuen laguntza-funtsetatik" (Costa, 2011).

Ipar-Ekialdeko Eskualdean, landa-ingurune emakume-talde batzuek badute partaidetza txandakako funts-solidarioetan. Halako funtsek kudeaketa kolektiboaren bidez funtzionatzen dute, diru-zirkulazioarekin edo gabe (adibidez, hazi-trukea edo hazitarako abere-trukea sustatuta), eta familiako nekazaritzarako eskuragarri dauden baliabideei buruzko eztabaidarekin, gobernuko zenbait instantziatatik. Emakumeek nahiko ebaluazio positiboa egiten dute, funts horiek komunitate bakoitzaren bokazioaren inguruan (horren barruan dago ki-deek komunitatean egindako jarduerak aldatzeko borondatea) eta agroekologiarako trantsizioaren inguruan lan egitea ahalbidetzen dutelako.

Baliabideak eskuratzeko era hori bat dator emakumeek duten -askotan aipaturiko- zorpetzeko beldurrarekin. Familiaren, komunitatearen, merkatuaren eta Estatuaren dimentsioak batera aztertzen direnean -Bina Agarwal indiar ekonomialariak proposatzen duenez-, uler daitezke "zorpetzeko beldurra" esamoldearen atzean dauden emakumeen arazoak (Agarwal, 1997). Esaterako, Elisabeth Hofmannek eta Kamala Marius-Gnanouk, mikrokreditu-politikak aztertzean, aditzera ematen dute kreditua itzultzeko eginiko sakrifizioa ez dela kontuan hartzen emakumeen ordainketa-tasa handiei buruzko ebaluazio positiboetan. Kreditua ordaintzeko presioak, sarritan, tirabirak sortzen ditu familian, eta etxeko indarkeria ere gertatzen da batzuetan (Hofmann eta Marius-Gnanou, 2003). Emakume nekazariak aipatzen duten beste kezka bat da beraiek ez dutela ondasunik edo abererik hartutako kredituari aurre egiteko, beharrezkoa izanez gero.

Brasilen, emakumeak dira Banco do Nordeste, Banco do Brasil eta Santander bankuekin Ekoizpenerako Mikro-

<sup>10</sup> Zabor-birziklapenean muntaketa-katea erabiltzeari buruz, ikus: Ioli Gewehr Wirth, *Mulheres na triagem, homens na prensa: questões de gênero em cooperativas de catadores*, Annablume arg., São Paulo, 2013.

kreditu Orientatuaren Programaren barruan izenpetzen diren kontratu gehienek erantzuleak. Hala ere, onarturiko mailegu gehienak banakako ekimenetara bideratu ziren. Bestalde, politika gauzatzen duten eragileek arrerapenak egin behar dituzte emakumeen autonomia ekonomikoaren gaineko ulermenean. Horri dagokionez, adierazgarria da Campinaseko Banco Popular da Mulher bankuko kudeatzaile exekutiboak bideo instituzionalean duen diskurtsoa. Bideo horretan dio emakumea dela familia osoari zein etorkizuneko belaunaldiei onura emateko modurik eraginkorrena, haren aburuz "emakumeek berezkoa dutelako seme-alaben premia beren premiaren gainetik jartzea"<sup>11</sup>.

### Autogestioa

Autogestioa EESen berezko osagaia da. Capina izeneko GKEaren esperientziaren bidez, kudeaketa demokratiko baten elementuak nabarmendu daitezke. Abiapuntua egunerokotasuna da, "non gauzak gertatzen diren, eta prozesuak mamitzen", baina asmoa da pertsonak menderatzen dituzten gizarte-harreman desorekatuak eraldatzea: "nola sortuko dut bizimodu jakin bat; nola sortuko dut bizirik nahi ez nauen sistematik kanpo eta haren aurka bizitzeko aukera bat. Hortik dator testuinguru makroaren eta mikroaren irakurketa egiteko beharra. Testuinguru mikroan sartzen dira taldearen dinamika eta lan-prozesua antolatzen duten arauak eta akordioak era kolektiboan zehazteko gaitasuna, eta horren barruan badaude, orobat, sormenaren bultzada eta etengabeko ikaskuntza (Lobato eta Fonseca, 2009). Luiz Inácio Gaigerrek, ekimenen elkartasuna ebaluatzeko irizpidetzat, honelako itemak erabiltzen ditu: "bazkideek hartutako erabaki kolektiboak; kontuen kudeaketa gardena, eta bazkideek fiskalizatua; eguneroko parte-hartzea ekimenaren kudeaketan" (Gaiger, 2007). Berak ebaluatzen duenez, identifikatutako talde gehienek, maila batean edo bestean, irizpide horiek betetzen dituzte, eta puntu ahulenak dira sareetan parte-hartzea eta kontsumo-talde solidarioekiko harremana. Berrito ere, horrek agerian uzten du barneko eta kanpoko testuinguruen arteko uztarketa beharrezkoa dela, ekimenen iraunkortasuna isolamendua haustearekin lotu behar dela, eta ekonomia solidarioko mugimenduak, oro har, sorturiko dinamiketan sartu beharra dagoela.

Egunerokotasunean errotzea, makroaren eta mikroaren

arteko dikotomiak gainditzea, bat datoz antolaketa sozialaren ikuspegi feministarekin. Esperientzia feministatik egin daitezkeen ekarpenak harago ere joan daitezke. Elkarrizketa-puntuak ezartzeko, ondoren berreskuratzen ditut printzipioak eta balioak eraginkor bihurtzen dituzten praktika batzuk, Quebeceko emakumeentzako abegizentzaren kudeaketan gauzatutakoak, sistematizatuta (L'Regroupement des centres des femmes, 2006).

Hona hemen praktika horiek:

- Funtzionamendu ez-burokratikoa, lantaldean bosterea era horizontalean partekatze bide ematen duena. Funtzionamendu horren bereizgarriak dira: erabakiak kontsentsuz hartzea; lan-antolaketa berdintasunez aitortzea funtzio guztiak eta nolabaiteko txandakatzea ezartzea zereginetan, funtzioen espezializazioari balioa eman beharrean; informazioen zirkulazioa, botere bertikala ez dadin garatu; espazioa hierarkikoa ez den era batean esleitzea; eraginkortasuna eta pertsonen ongizatea, arlo arrazionala eta afektiboa bateratzeko mekanismoak (esaterako, lantaldeen bileretan, gai-zerrendako gaitako bat "zer moduz gauden" jakitea da).
- Kideek antolakundean dituzten tokiari eta rolari buruzko kezka. Horrek berekin dakar, besteak beste, botere-espazio alternatiboak dituzten lantaldeak antolatzea; babeseko, elkarren laguntzako eta elkartasuneko giro bat sustatzea kideen artean, prestasunean, entzutean, konplizitatean eta elkarrekiko errespetuan oinarrituriko harremanak sortuta.
- Ezaugarri hauek dituzten lan-harremanak: langileek kontrola izatea lan-prozesuaren gainean; kide bakoitzaren ekarpena, entzunak izateko aukera, eta ekimena eta sormena izateko aukera aitortzea lan-harremanetan; espezializatorik eza eta berdintasuna lan-baldintzetan, lansarrietan eta mozkinetan.

Elkarrizketa-puntuak izan daitezke mugimendu feministaren "pertsonala dena politikoa da" kontsignatik eratorritakoak, zein arrazoiaren eta emozioaren, publikoaren eta pribatuaren, arteko dikotomiak gainditzetik eratorritakoak. Taldearen kudeaketak emakumeak bere familian izandako bizipenak barne hartzen

<sup>11</sup> Banco Popular da Mulher bankuaren bideo instituzionala: <http://www.youtube.com/watch?v=QuRRXP1ehOY> (2014ko uztailaren 18an kontsultatua).

ditu, hala nola, presioak eta boikotak, gainzamak, bai eta indarkeriazko egoerak ere. Beste eztabaida batzuk adostasunez eta modu horizontalean erabakitzen dira. Aipatutako azterlanak nabarmentzen du kontsentsuaren bilaketa nolabaiteko prozesua dela, eta, bertan, bestelako iritziak eta interesak adierazi daitezke, inklusiboa izateaz gain. Kontsentsua arau gisa ezartzeak desadostasunak estal ditzake, eta atsekabeak metatu; ondorioz, kideak bertatik irten daitezke edo taldea zatitu egin daiteke. Horizontaltasuna ere konpromiso politikotzat ikusi behar da, bai eta kontraesan batzuk izango dituen prozesutzat ere; adibidez, taldeak erabakiak hartzeko dituen zailtasunak, edo espezializazioaren eta trebetasunen inguruko eztabaida. Feminismoaren testu klasiko batek, *Egiturarik ezaren tirania* delakoak (Jo Freemanek idatzia 1970ean<sup>12</sup>), ekarpena egiten du ildo horretan. Hona hemen proposatzen dituen printzipio-etako batzuk, egituratze demokratiko eta politikoki eraginkor baterako:

- "Agintea ahal den pertsona gehienen artean banatzea, arrazoizko eran. Horrek boterearen monopolioa eragozten du, eta aginte-postu batean daudenek, beren boterea erabiltzean, beste pertsona askori galdetu behar izatea dakar. Era berean, pertsona askori aukera ematen die zeregin jakin batzuez arduratzeko eta, horrela, berariazko trebetasunak ikasteko.
- Zereginen txandakatzea pertsonen artean. Pertsona baten esku luzaro uzten diren ardurak, era formalean zein informalean, azkenean haren "jabetzakoak" balira bezala ikusten dira, eta ez da erraza izaten taldeak ordeztzea edo kontrolatzea. Alderantziz, zereginen txandakatzea oso maiz egiten bada, pertsonak ez dute betarik izango beren lana ongi ikasteko eta lan ongi eginarene sentipena esperimentatzeko.
- Zereginak arrazoizko irizpide batzuen arabera esleitzea. Epe luzean, taldearentzat eta pertsonentzat, kaltegarria da pertsonak postu baterako esleitzea, pertsona horiek taldean ongi ikusita daudelako; edo lan gogaikarria ematea, oso estimatuak ez direlako.

Trebetasunak, interesak eta ardurak izan behar dute hautatzeko irizpide nagusiak. Ez dituzten trebetasunak ikasteko aukera izan behar dute pertsonak, baina hobe da "ikastunen" programa baten edo antzeko zerbaiten bidez ikastea, "igeri edo ito" metodoaren bidez baino. Norberaren jasankortasuna gainditzen duen arduraren bat izateak adorea galtzea eragin dezake. Alderantziz, norbera trebe den zereginetatik at uzteak ez du inor trebetasunak garatzera akuitlatzen. Emakumeak trebe izateagatik zigortu izan dituzte gizateriaren historian zehar. Mugimenduak ez du zertan prozesu hori errepikatu"

Printzipio horiek ekoizpen-taldean lana antolatzeko erreferentziatzat ere erabil daitezke. Horretarako, beharrezkoa da helburu erkideak eta konfiantzazko harremanak izatea, eta gatazkak tratatzeko, ezbeharrak gainditzeko eta sortzen diren aukerekin hazteko mekanismoak sortu eta birsortzea denboran zehar.

### *Merkaturatzea*

Brasilgo emakume nekazarien etekin-gehikuntzan eragin handia izan duen politika bat Elikagaiak Eskuratzeko Programa (PAA) da. Zuzeneko erosketa familiako nekazarien elkarrekin eta kooperatibek formalizatzen dute. Programa hori 11.947/2009 Legearen oinarrian dago; hain zuzen, lege horrek xedatzen du Eskolako Elikadurarako Hezkuntza Garapeneko Funts Nazionalera (PNAE) transferitutako baliabideen %30, gutxienez, familiako nekazariari eta haien antolakundeei produktuak erosteko erabili behar dela, lehentasuna emanik *nekazari-kokalekuetako pertsonari*, indigenei, *quilombola* direlakoei, eta gainerako populazio tradizionalari. Inpaktu ekonomikoa hain da garrantzitsua, non PAA programak eta programa hori hornitzen duten elkarrekin kriminalizazio larria nozitu zuten<sup>13</sup>.

PAA programak sortu zuen aukeraren harira, lehen eskulanak ekoizten zituzten hainbat emakume-taldek elikagaiak ekoizten eta merkaturatzen hasi ziren. Emakume askok parte hartzen badute ere, askotan senarraren

<sup>12</sup> <https://we.riseup.net/assets/99743/A%20TIRANIA%20DA%20FALTA%20DE%20ESTRUTURA.pdf> (pt) (2014ko uztailaren 17an kontsultatua).

<sup>13</sup> 2013ko urrian, Polizia Federalak "agrofantasma" izeneko operazio bat abiarazi zuen, PAA-n gertaturiko usteko irregulartasunak eta baliabide-desbideraketak aztertzeke. Operazioak atentzioa eman zuen poliziari erabilitako nabarmentasunagatik eta hedabideetan izandako neurri gainera oihartzunagatik; ondorioz, 10 nekazari eta Paranáko Conab (Hornikuntzako Konpainia Nazionala) konpainiako funtzionarioak atxilotu zituzten, eta Conabeko Nezazaritza Politikako eta Informazio zuzendariari akusazio poliziala egotzi zitzaion. "Irregulartasunak" deitutako horiek ohiko praktikak dira familiako nekazarien merkaturatzean, hala nola, produktu batzuk antzeko beste batzuez ordeztzea, ekoizpenean aldaketak gertatu direlako, klimaren edo beste faktore natural batzuen ondorioz. Ikus oharra hemen: [http://www.fb.es.org.br/index.php?option=com\\_content&task=view&id=7843&Itemid=62](http://www.fb.es.org.br/index.php?option=com_content&task=view&id=7843&Itemid=62)



lanbide-erregistroa erabiltzen dute. PAA programako modalitateetan hornitzaile gisa formalki erregistraturik dauden emakumeen parte-hartzea abeltzaintzako eta nekazaritzako ekoizpenean duten parte-hartzearen azpitik dago oraindik (Siliprandi eta Cintrão, 2011).

Hiri-talde batzuen jatorrian ere badaude merkaturatzeak sortutako aukerak. Univens kooperatibak (Irabaziko dugu Jostun Batuen Kooperatiba) 1996. urtean sortu zen, taldean eginiko lana formalizatzeko beharra zela medio, Porto Alegreko ospitale batekin kontratua egiteko. Kooperatiba hazi egin zen; ekoizpena dibertsifikatu zuen, serigrafian ere jardunez; zenbait mugimendu sozial produktuz hornitu zituen, Munduko Foro Sozialaren poltsak tartean; eta "Justa Trama" ekoizpen-katea ezarri zuen, Ceará estatuan kotoi-landare ekologikoak landatzetik hasita. Hileroko batez besteko sarrerak gutxieneko soldataz gainera edukitzera ere iritsi ziren (Nobre eta Araújo, 2011).

Erosketa instituzionalez gain, emakumeek ferietan parte hartzea eta erosketa-taldeekin harremanetan egotea balioesten dute. Erosle-dibertsitatea edukitzeak segurtasun handiagoa ematen die, eman beharreko kantitateen malgutasuna bat dator lan-denboraren moldaketekin, eta bezeroen iritzia bide bat da ikasteko eta produktuak hobetzeko.

Artikulu honetan agendaren elementuen arteko bereizketa egin izanak (prestakuntza, finantzaketa, kudeaketa...) helburu didaktikoa baino ez du; praktikan, halakoak uztarturik daude. Askotan, taldeek, egiten dituzten ebaluazioetan, ondorioztatzen dute haien itogune nagusia merkaturatzea dela. Alabaina, aurkituriko oztopoei begiratzen bazaie, ikusten da haietako gehienak badaudela ekoizpenean, sargaiak eskuratzeko aukeran eta ekoizpen-kostuei -eta ondorioz, prezioei- eragiten dieten lan-prozesuetan. Hala, bada, ekoizpen-prozesuko, banaketako eta kontsumoko etapa bakoitza aztertu behar da, haien arteko loturen bila.

Emakumeei dagokienez, alderdi garrantzitsu bat autokontsumoaren eta salmentaren arteko lotura da. Oro har, emakumeek autokontsumoa eta beren familientzako elikadura-kalitatea balioesten dituzte. Senarrek gatazkak ere izaten dituzte luraren erabileraren inguruan, etxeko baratzerako eremua bermatzeagatik, merkataritzarako ekoizpenerako eremua hedatzeko presioen aurrean. SOF antolakundeak elikagai-ekoizpeneko

(hazi eta prozesatu) 10 talderekin eginiko ikerketa batean, atzeman zen ekoizpena inguruko azoketan saltzen hasten ziren taldeak beren elikadura hobetzen ere hasten zirela familietan. Horren arrazoia zen emakumeek kontzientzia handiagoa zutela elikaduraren inguruan, eta kalitatezko lehengaiak erosteko bideak ezarri dituztela, merkaturatzearen eskariak direla-eta.

### *Formalizazioa*

Brasilgo Herritarren Lurraldeetako ekoizpeneko 212 emakume-talderekin batera, SOF eta CF-8 antolakundeek egin zuten diagnostikoan atzeman zen taldeen erdiak baino apur bat gehiago ez zeudela formalizatuta. Haietako gehienek formalizatu nahi zutela zioten, baina askok prozesu horretarako zailtasunak aipatu zituzten. Ez formalizatzeko arrazoi nagusiak legearen eskakizun handiak eta kostuak izan ziren. Ziur asko, legeztatze beharrak badu lotura irekitako merkaturatze-bideekin eta diru-sarrerak hobetzeko perspektibarekin; izan ere, taldeen %90ek ekoizpena handitzeko nahia adierazi zuten. Hala ere, formalizatzeko interes handi hori ez dator bat beste analisi batzuekin, hala nola, Emma Siliprandik eta Rosângela Cintrão landa-ingurune emakumeak PAA programan sartzearen inguruan egin zuten ebaluazioan aipatutakoekin. Haien diotenez, "emakume lider batzuen aburuz, ez du merezi ekimenak formalizatzen inbertitzea, emakume-taldeak txikiak izaten direlako eta ez dutelako ekoizpen jarraitua urte osoan zehar, formalizatzeko kostuak, aitzitik, handiak eta etengabeak izanik. Arazo hori are problematikoagoa da, taldeak kokaturik dauden eskualdea pobregoa den neurrian" (Siliprandi eta Cintrão, 2011).

Ziurrenik, formalizatzeko interesak (izandako zailtasunekin erlazionatutakoak) konponbide alternatiboak bilatu beharko ditu; esaterako, hainbat talde, elkarte edo kooperatiba biltzea, kostuak erdibanatuta eta eskariei erantzuteko ahalmen handiagoarekin. Horixe da, adibidez, Osasco elikagai-sarearen esperientzia. Hain zuzen, sare hori Emakumeen Mundu Martxaren 2010eko Ekin-tza igaro eta gero eratu zen. Udal-prefekturak esku hartu zuen zenbait emakume-talde antolatze, otorduak presta zituzten, denbora laburrean 3.000 errazio atondu eta banatzeko erronkari erantzun behar zitzaion-eta. Ekonomia Solidario eta Feministako Sareak ere hartu du helburutzat "18 sareen produktuak eta zerbitzuak tokiko/lurraldeko esparruan merkaturatzeko estrategiak garatzea, gobernuak egiten dituen erosketetan parte

hartzeko aukera bereziki landuta; sarearen nazio-maila ziurtatu eta baliatzea merkaturatze-prozesuak bultzatzeko<sup>14</sup>, eta horretarako, halaber, formalizatzeko estrategia osagarriak eraman behar dira aurrera.

Ekonomia solidarioko mugimenduak eta familiako nekazaritzakoak batera jardun dute osasun-kontrolako arauak aldatzeko, eta emaitza garrantzitsuak lortu dituzte. Arauak berberak ziren hala ekoizle handientzat -bide luzea egiten duten produktuekin-, nola ekoizle txikiarentzat, produktuak gehienetan inguruko azoketan saltzen badituzte ere. Horrela, emakumeak legez kanpo egoten ziren beren ogi, gazta, marmelada edo azukre-ogiekin. Eskolako elikadurarako hornikuntzan, kasu batzuetan, emakume nekazariak ordeztutako enpresek osasun-erregistrorik ez izatea salatzen zuten ANVISA - Osasun Jagoletzako Agentzia Nazionalaren aurrean; gero, emakume horien enpresa berek, ekoizpena erosteko eta beren erregistroarekin eskoletan saltzeko. Benetako garaipena izan zen ANVISAren 2013ko urriaren 30eko 49. Ebazpena, banakako mikroekimenei, landa-inguruneko familia-ekimenei zein ekonomia solidarioko ekimenei zuzendua. Ebazpen horrek ekoizpen-espaziotzat aitortu zuen etxebizitza, eta osasun-kontrolaren rola batez ere orientatzeko zela adierazi zuen, eta ez zigortzekoa. Berehala, 13.011/14 Legeak mikroekintzaileak eta EESak fiskalizazio-tasa ordaintzetik salbuetsi zituen; kasu batzuetan, hain zuzen, tasa hori 500 R\$-koa izan zitekeen (158 € inguru). Animalia-jatorriko produktuak eta edariak Nekazaritza Ministerioak ikuskatzen ditu, eta ez daude jasorik arau berri hauetan. Gazten, hestebeteen eta fruta-mami izoztuen ekoizpena (herrialdeko eskualde batzuetan gehienbat emakumeek egiten dituzte), legez kanpo dago oraindik, kasu askotan.

Emakume nekazariak, sarritan, barazkiak, frutak eta belarrak ongari kimikorik eta pozoirik erabili gabe ekoizten dituzte. Zenbait landare konbinatzen dituzte laborantzan, txandaketa egiten dute luraren erabilerran, jarabeak erabiltzen dituzte eta hondakin organikoz eta/edo oilo-zirinez eginiko konpostarekin ongarritzen dute. Amengandik ikasitako teknikak erabiltzen dituzte, teknika berriak ere asmatzen dituzte, eta auzokoekin trukutzen dituzte. Ekoizle agroekologikoak dira, be-

raz. Azkenaldian, merkaturatzeko aukerak zabaldu egin dira, prezio hobekak lortuta feria agroekologikotan, erosketa-taldeetan eta PAA programan bertan, prezio hobekak eta kuota handiagoak baititu produktu agroekologikoetarako<sup>15</sup>.

Merkaturatzeko aukerak ugartzearekin batera, produktu organiko edo agroekologikoa zer den zehazteko arauak iritsi ziren. Erakunde pribatuen ikuskaritzek eskatzen dituzten eta kostu handikoak diren zigiluz gain, nekazari-antolakundeek parte-hartezko ziurtapen-erak garatu zituzten, hala nola, Ecovida Sarea, herrialdearen hegoaldean. Nekazaritza Ministerioak kontrol sozialeko sistema bat sortu zuen ferietako zuzeneko salmentarako eta PAA eta PNAE programetarako. Kontrol Sozialeko Antolakundeak (OCS) ezarri zituen; bertan, era solidarioan besteen praktiken erantzule egiten diren hainbat nekazari biltzen dira. Oraindik gogoeta sistematizatu gutxi egiten da OCSetako parte-hartezko ziurtapen-prozesuetan emakumeek duten parte-hartzeari buruz. Emakume nekazari batzuek diotenez, ez dute lortzen OCS talde horietan egotea, beste kideek haien ekoizpena txikia eta -autokontsumoa hobesten dutenez- jarraipenik gabekoa dela deritzotelako eta haien ekoizpena bisitatzeko eta prozesuan integratzeko astirik ez dutelako. Askotan, halaber, emakumeek ez dute gutxieneko inbertsio-baliabiderik unitatea egokitzeko; esate baterako, hobi septikoaren eta baratzearen arteko distantzia ziurtatzeko.

## Ondorioak

Ekonomia solidarioak, ekonomia kapitalistari kontrajarrira, hegemoniaren aurkako ekimenak berreskuratzen ditu komunitate tradizionalak eta mugimendu sozialek, ezarritako ordena tentsio eta hausturako uneak pasatzen ari denean bereziki. Halako egoeretan, publikoaren eta pribatuaren arteko dikotomiak hautsi egiten dira, bai eta emakumeen rol tradizionalak ere. Okupazioa ekintza gisa erabiltzeak logistika-kontuztat hartu ohi diren ekintzak politizatzen ditu, elikatze kolektiboa kasu; horrek aukera ematen du ekoizpenaren eta berrekoizpenaren artean beste uztarketa-era batzuk ezartzeko. Hainbat kolektibo feministek abian jarritako

<sup>14</sup> [http://guayi.org.br/?page\\_id=1584](http://guayi.org.br/?page_id=1584) (2014ko uztailaren 17an kontsultatua).

<sup>15</sup> PAA programara produktuak ekartzen dituen familia bakoitzak 5.500 R\$-ko urteko kuota du, eta kuota hori 8.000 R\$ da produktu organikoak izanez gero. Eskualde batzuetan, hala nola, São Pauloko *nekazari-kokalekuetan*, familiak bi produktu-ekarpen eginez iristen dira kotara. Kasu horretan, emakumeek ezin dituzte era autonomoan ekarri beren ardurapean ekoiztiko produktuak.

eztabaida eta ekintzek uztarketa hori sakondu dezakete, eta agendan interdependentzia, zainketen krisia eta antzeko beste gai batzuk sar ditzakete.

Denboran zehar dirauten ekonomia solidarioko esperimentuak sareetan antolatuz eta politika publikoaren laguntza bereganatuz indartzen saiatzen dira. Brasilen, politika publikoak antolatzean, Ekimen Ekonomiko Solidarioen esparrura mugatu ziren ekimenak. Hipotesia da mugatze horrek alde batera uzten dituela emakumeak nagusi diren ekimen asko. Emakume-taldeetako askok profesionalizatu nahi dute, beren etekinak gehitzeko. Lagundu egin behar zaie eta, aldi berean, profesionalizazio hori nola gertatzen den aztertuz joan, lana antolatzeko, teknologiarekiko eta merkatuekiko harremanetarako ikuspegi feminista erabiliz, besteak beste.

Estatuaren politikek -jarraituak direnean- aurretiaz antolatutako baino populazio zabalago batentzat jarduteko abantaila dute; horrek aldeko gizarte-giroa sortzen

du lana antolatzeko eta errentak eskuratzeko beste era batzuetarako, enpresa kapitalistaren aurreko alternatiba gisa. Bestalde, politika horiek berezko logikak eta denborak dituzte, eta horrek mugatu egin dezake ekoizpenerako emakume-taldeen ekintzek izan behar duten izaera. Mugapen horiek areagotu egiten dira herri-borroken eta mugimenduen ekimenen kriminalizazioa egiten den testuinguru batean. Ekonomia solidarioko emakume-taldeen beren burua indartu egin behar dute, politika publikoek abiaraziriko prozesuetan sortzen diren aukeretan engaiatzeko eta aukera horiek berak zabaltzeko; eta, aldi berean, ez dute mugatu behar eztabaida instituzionalizatuaren nondik norakoetara, baizik eta etengabe eta era autonomoan jarraitu beren horizontea eta bideak berreraikitzen.



## Glosarioa

ANVISA:	Osasun Jagoletzako Agentzia Nazionala
ATER:	Laguntza Tekniko eta Landa Hedapena
CF8:	Martxoaren 8a Zentro Feminista
CONAB:	Hornikuntzako Konpainia Nazionala
EES:	Ekimen Ekonomiko Solidarioak
OCS:	Kontrol Sozialeko Antolakundea
PAA:	Elikagaiak Eskuratzeko Programa
PNAE:	Eskolako Elikadurarako Hezkuntza Garapeneko Funts Nazionala
PRONATEC:	Heziketa Teknikoa eta Enplegua izateko Programa Nazionala
SENAES:	Ekonomia Solidarioaren Idazkaritza Nazionala
SIES:	Ekonomia Solidarioaren Informazio Sistema Nazionala
SOF:	Sempreviva Organização Feminista



## Bibliografia

- Agarwal, Bina*: "Bargaining" and gender relations: within and beyond the household, *in* IAFFE: Feminist Economics, 3, 1. lib., Routledge, 1997.
- Butto, Andrea; Dantas, Conceição; Hora, Karla; Nobre, Miriam; Faria, Nalu* (koor.): Mulheres rurais e autonomia. Formação e articulação para efetivar políticas públicas nos Territórios da Cidadania, MDA, Brasília, 2014.
- Cabnal, Lorena* : Acercamiento a la construcción del pensamiento epistémico de las mujeres indígenas feministas comunitarias de Abya Yala, *in* Feminismos diversos: el feminismo comunitario, ACSUR, Las Segóvias, 2010.
- Costa, Jussara Carneiro*: Mulheres e economia solidária: hora de discutir a relação!, *in* Sociedade e Cultura, 14. lib. - 1. zk., 2011ko urt.-ekoa. UFG, Goiânia, 2011.
- Freeman, Jo*: *A tirania da falta de estrutura*. Herética difusão lesbofeminista independente, <https://we.riseup.net/assets/99743/A%20TIRANIA%20DA%20FALTA%20DE%20ESTRUTURA.pdf> (2014ko uztailaren 17an kontsultatua).
- Gaiger, Luiz Inácio*: A outra racionalidade da economia solidária. Conclusões do primeiro Mapeamento Nacional no Brasil, *in* Revista Crítica de Ciências Sociais, 79, 2007ko abe.
- Guérin, Isabelle eta Nobre, Miriam*: L'économie solidaire revisitée à la lumière du genre: outil de changement social ou reproduction de la subordination féminine? Sous le développement, le genre mahai-inguruan aurkezturiko artikulua, IRD, Geneva, 2012.
- Hillenkamp, Isabelle; Guérin, Isabelle eta Verschuur, Christine*: Economie solidaire et théories féministes: pistes pour une convergence nécessaire, *in* Revista de Economia Solidária, 7, ACEESA, Azoreak, 2014ko urria.
- Hoffman, Elisabeth eta Marius-Gnanou, Kamala*: Le microcrédit pour les femmes pauvres - Solution miracle ou cheval de troie de la mondialisation, *in* Bisilliat, Jeanne (koor.): Regards des femmes sur la globalisation: approches critiques sur la mondialisation, Karthala, 2003.
- Instituto de Estudios de la Mujer*: Mujeres en cifras. Boletín Estadístico, 3, 2013ko martxoa, <http://www.inmujer.gob.es/estadisticas/boletinEstadistico/docs/Boletin3Marzo2013.pdf> (2015eko urtarrilaren 13an kontsultatua).
- Lobato, Rosana eta Fonseca, Maiara* (koor.): Viabilidade econômica e gestão democrática de empreendimentos associativos, Catarse - Coletivo de comunicação, Porto Alegre, 2009.
- L'Regroupement des Centres de Femmes du Québec*: Trousse de formation sur la gestion féministe, L'R Centres de Femmes du Québec, Montreal, 2006.
- Nobre, Miriam eta Freitas, Taís Viudes*: Possibilidades e limites na construção da igualdade de gênero na Economia Solidária, *in* Georges, Isabel eta Paula Leite, Márcia (koor.): Novas configurações do trabalho e Economia Solidária, Annablume arg., São Paulo, 2012.
- Pérez Orozco, Amaia*: Ameaça tormenta: a crise dos cuidados e a reorganização do sistema econômico, *in* Faria, Nalu eta Moreno, Renata (koor.): Análises feministas: outro olhar sobre economia e ecologia, SOF, São Paulo, 2012.
- Rauber, Isabel*: Mujeres Piqueteras: el caso de Argentina, *in* Reysoo Fenneke: Economie Mondialisée et Identités de Genre, UNESCO, Geneva, 2002.
- Secretaria de Políticas para as Mulheres*: RASEAM Relatório Anual Socioeconômico da Mulher 2013, SPM, Brasília, 2013.

*Secretaria Nacional de Economia Solidária: Acontece SENAES. Boletim Informativo Divulgação dos dados do SIES 2013, SENAES/TEM, Brasília, 2013.*

*Secretaria Nacional de Economia Solidária: Atlas da Economia Solidária no Brasil 2005, SENAES/MTE, Brasília, 2006.*

*Siliprandi, Emma eta Cintrão, Rosângela: As mulheres agricultoras e sua participação no Programa de Aquisição de Alimentos, in Butto, Andrea eta Dantas, Isolda: Autonomia e cidadania: Políticas de organização produtiva para as mulheres no meio rural, MDA, Brasília, 2011.*

*Wirth, Ioli: Mulheres na triagem, Homens na prensa, Anablume arg., São Paulo, 2013*